- En materia de contratación:

- La competencia en relación con los contratos menores, que se atribuyen a los/-as Delegados/-as de cada Area y las facultades correspondientes al órgano de contratación en relación a los contratos de obra que, no teniendo la consideración de menores, son, sin embargo, de la competencia de los/-as Delegados/-as de cada Area (aprobación del programa de trabajo y aprobación del plan de seguridad).

- Las facultades correspondientes al órgano de contratación en relación con los restantes contratos que son de la competencia de la Junta de Gobierno Local salvo la facultad de clasificación de las proposiciones y requerimiento de documentación previos a la adjudicación de estos contratos y la aprobación de los expedientes adicionales de gasto en caso de revisión de precios que corresponderán a la Delegada.

- En materia de hacienda:

- Aurrekontuan berariaz eta diru izendapenarekin jaso ez diren diru laguntzen obligazioak baimendu, xedatu eta ezagutzea, Gobernu Batzarraren eskumenekoak badira; eta baita aurrekontuan berariaz xedatutako diru laguntzak nahiz diru laguntza horiek ematea udal ordenantzaren batean berariaz araututa ez daudenak ere, dena delako gaiaren eskuordedunarenak badira.

- Autorización, Disposición y Reconocimiento de obligaciones de subvenciones no previstas expresamente en el Presupuesto con consignación presupuestaria que son competencia de la Junta de Gobierno y de las subvenciones previstas expresamente en el Presupuesto y de las no previstas cuya concesión esté expresamente regulada por alguna ordenanza municipal que corresponden al delegado/-a competente en la materia.

- Gobernu Batzarraren eskumen diren kreditu eragiketak.
- Gobernu Batzarraren eskumen diren diruzaintzako eragiketak.
- Aurrekontuak aldatzea Aurrekontua Erabiltzeko Udal Arauan ezarritakoaren arabera.
- Berariaz zehazten den beste edozein:

- Operaciones de crédito de competencia de la Junta de Gobierno Local.
- Operaciones de tesorería de competencia de la Junta de Gobierno Local.
- Modificaciones presupuestarias en los términos recogidos en la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria.
- Cualesquiera otras que específicamente se determinen:

Fede Publiko Elektronikoa aplikazioa erabili gabe egindako egiaztagiriak ontzat ematea — Organoen Funtzionamendu Araudiko 205. art.

El visto bueno de certificaciones -art.205 ROF-. no elaboradas mediante la utilización de la aplicación de Fé Pública Electrónica.

1. c. Kontratu eta hitzarmenak sinatzeari loturiko ahalmenak eta eskumenak hauek dira:

1. c. Las atribuciones y facultades en relación con la firma de Contratos y Convenios son las siguientes:

- Eskuordetutako eskumen eta ahalmenei eta beren erabilerari buruzko Arauetan kontratu eta hitzarmenak izenpetzeari dagokionez modu homogeneoan zehaztutakoak (arauetako 4. atala).

- Las determinadas con carácter homogéneo en las Normas sobre atribución y facultades delegadas y su ejercicio en lo que corresponde a la firma de contratos y convenios (Apartado 4 de las referidas Normas).

- Berariaz zehazten den beste edozein: bat ere ez.

- Cualesquiera otras que específicamente se determinen: Ninguna.

2. Araubide Orokorreko Antolamendu eta Jarduerari buruzko Araudiko 114. artikuluaren arabera, jakinarazpena jaso eta hiru lanegun baino lehen idatziz kontrakorik adierazten ez bada, eskuordetzea onartu egin dela joko da.

2. De conformidad con lo establecido en el art. 114 del ROFRG sin comunicación escrita en contrario en el plazo de tres días hábiles desde su recepción la delegación se entenderá aceptada.

3. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, AOAJAko 46 eta 52. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

3. Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 46 y 52 del ROFRG.

4. Hurrena egiten duen bileran ematea erabaki horren berri Udalbatzari.

4. Dar cuenta de dicho acuerdo al Pleno en la próxima sesión que celebre.

BIGARREN.- Aldatzea Gobernu Batzordeak eskuordetzeei buruz 2019ko ekainaren 21ean hartutako Erabakiaren 5. puntua, zehazki, ordezkarien ordezkapenei buruzkoa, 2020ko abenduaren 1eko Gobernu Batzarraren bidez eguneratua izan zena. Honela geratuko da Gobernantzako Ordezkaritzaren ordezkapena:

SEGUNDO.- Modificar el Punto n.º 5 del Acuerdo de la Junta de Gobierno de 21 de junio de 2019 sobre delegaciones, relativo a las sustituciones de las Delegadas y Delegados, actualizado por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 1 de diciembre de 2020, quedando redactado de la manera que sigue, en lo que a la sustitución de la Delegación de Gobernanza se refiere:

- Gobernantzako Ordezkaritza
Lehen ordezkoa: Maria Jesus Idoeta Madariaga
Bigarren ordezkoa: Kerman Orbegozo Uribe

- Delegado de Gobernanza
Primera sustituta: Maria Jesus Idoeta Madariaga
Segundo sustituto: Kerman Orbegozo Uribe

Donostian, 2022ko urtarrilaren 12a

ALKATEA

Eneko Goia Laso”

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**4. Batzordeetako, Kontseiluetako eta Ekialdeko Barrutiko Udal batzarreko ordezkarien hainbat aldaketen berri ematea.**

**4. Dar cuenta de diversos cambios de representantes en Comisiones, Consejos y Junta Municipal de Distrito Este.**

**4.1.**

“UDALBATZARI

EAJ/PNV udal taldearen bozeramaileak izaera

**4.1.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

El portavoz del grupo municipal EAJ/PNV ha

orokorreko batzorde egonkorretako hainbat ordezkari aldaketa egiteko taldearen borondatea adierazi du (Udalbatzaren Erregistroan 2022/98 sarrera-zenbakiaz aurkeztutako idazkia), eta horren berri ematen zaio jarraian Udalbatzari:

comunicado la voluntad de su grupo de realizar diversos cambios de representantes en las comisiones permanentes de carácter general (escrito con número de entrada en el Registro de Pleno 2022/98), de lo que se da cuenta al Ayuntamiento Pleno a continuación:

GUNE PUBLIKOEN BATZORDEA. OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK/
COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS

| TITULARRAK/TITULARES | ORDEZKOAK/SUPLENTES |
|---|---|
| D.ª María Jesús Idoeta Madariaga | D. Jon Insausti Maisterrena |
| D.ª Pilar Arana Pérez | D.ª Jaione Hervás Sáez de Arregui |
| D.ª Nekane Arzallus Iturriza | D. Martín Ibabe Eceiza |

OGASUN BATZORDEA/
COMISIÓN DE HACIENDA

| TITULARRAK/TITULARES | ORDEZKOAK/SUPLENTES |
|---|---|
| D. Kerman Orbegozo Uribe | D.ª Pilar Arana Pérez |
| D.ª María Jesús Idoeta Madariaga | D.ª Nekane Arzallus Iturriza |
| D.ª Jaione Hervás Sáez de Arregui | D. Martín Ibabe Eceiza |

ZERBITZU OROKORRETAKO BATZORDEA/
COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES

| TITULARRAK/TITULARES | ORDEZKOAK/SUPLENTES |
|---|---|
| D.ª Jaione Hervás Sáez de Arregui | D. Jon Insausti Maisterrena |
| D. Juan Ramón Viles Mitxelena | D.ª Nekane Arzallus Iturriza |
| D.ª María Jesús Idoeta Madariaga | D. Martín Ibabe Eceiza |

COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN/
KONTRATAZIOAREN KONTROLERAKO ETA JARRAIPENERAKO BATZORDE BEREZIA

| TITULARRAK/TITULARES | ORDEZKOAK/SUPLENTES |
|---|---|
| D. Kerman Orbegozo Uribe | D.ª Pilar Arana Pérez |
| D.ª Jaione Hervás Sáez de Arregui | D.ª Nekane Arzallus Iturriza |
| D.ª Aitziber San Román Abete | D.ª María Jesús Idoeta Madariaga |

KONTUEN BATZORDE BEREZIA/
COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS

| TITULARRAK/TITULARES | ORDEZKOAK/SUPLENTES |
|---|---|

D. Kerman Orbegozo Uribe
D.ª María Jesús Idoeta Madariaga
D.ª Jaione Hervás Sáez de Arregui

D.ª Pilar Arana Pérez
D.ª Nekane Arzallus Iturriza
D.ª Aitziber San Román Abete

Donostian, 2022ko urtarrilaren 13an.

IDAZKARI NAGUSIA

Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga"

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

**4.2.**

"UDALBATZARI

EAJ/PNV udal taldearen bozeramaileak Ekialdeko Barrutiko Udal Batzarrean, Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Kontseilu Sektorialean zein Merkataritzako Kontseilu Aholkularian dituen ordezkarien ordezkoak aldaketzeko taldearen borondatea adierazi du (Udalbatzaren Erregistroan 2022/105 sarrera-zenbakiaz aurkeztutako idazkia), eta horren berri ematen zaio jarraian Udalbatzari:

**4.2.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

El portavoz del grupo municipal EAJ/PNV ha comunicado la voluntad de su grupo de realizar diversos cambios de representates (suplentes) en la Junta Municipal de Distrito Este, en el Consejo Sectorial de Educación y Cooperación para el Desarrollo, así como en el Consejo Asesor de Comercio (escrito con número de entrada en el Registro de Pleno 2022/105), de lo que se da cuenta al Ayuntamiento Pleno a continuación:

EKIALDEKO BARRUTIKO UDAL BATZARRA /
JUNTA MUNICIPAL DEL DISTRITO ESTE

| TITULARRAK/TITULARES | ORDEZKOAK/SUPLENTES |
|---|---|
| Martin Ibabe Eceiza | Jon Insausti Maisterrena |
| Jaione Hervás Sáez de Arregui | Pilar Arana Pérez |
| María Jesús Idoeta Madariaga | Aitziber San Román Abete |

GARAPENERAKO LANKIDETZAKO ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILU SEKTORIALA /
CONSEJO SECTORIAL DE EDUCACIÓN Y COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

| TITULARRA/TITULAR | ORDEZKOA/SUPLENTE |
|---|---|
| Jaione Hervás Sáez de Arregui | María Jesús Idoeta Madariaga |

MERKATARITZAKO KONTSEILU AHOLKULARIA /

CONSEJO ASESOR DE COMERCIO

| | |
|---|---|
| TITULARRA/TITULAR | ORDEZKOA/SUPLENTE |
| M. Jesús Idoeta Madariaga | Jaione Hervás Sáez de Arregui |

Donostian, 2022ko urtarrilaren 14an.

IDAZKARI NAGUSIA
Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga”

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**5. Bozeramaileen batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea.**

“Udalbatzari:

Bozeramaileen Batzordean onartutako Erakunde Adierazpenen berri ematen zaio:

EZ DA BATERE ONARTU

**5. Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces.**

“Al Ayuntamiento Pleno se da cuenta de:

Declaraciones Institucionales aprobadas en Junta de Portavoces:

NO SE HA APROBADO NINGUNA

Donostian, 2022ko Urtarrilaren 25ean

IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA”

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

I

ERABAKI ZATIA

LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA

**6. Donostiako Udal-Mugarteko IB.09 Goienetxe Hirigintza Eremuan dagoen b.20.1 lursailari buruzko xehetasun-azterketaren behin betiko onarpena.**

“Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko uztailaren 13an erabaki zuen hasierako onarpena ematea goian aipatu Xehetasun- azterlanari.

Xehetasun-azterketaren xedea da eraikin berri bat eraikitzea aipatutako lurzatian (IOM-ERAIKINA deiturikoa). Jarduera honek bi helburu ditu: desgaitasuna duten pertsonei egokitutako Oinarrizko Lanbide Heziketa sustatzea eta Zerbitzu Dibisioa handitu ahal izatea.

Horretarako, lurzatian zenbait doikuntza egitea proposatzen da, hala nola, b.20 1/4 eta 20.1/5 eremuen oinplanoko okupazioa aldatzea, eraikigarritasuna aldatzea, eraikuntza-profila aldatzea, irisgarritasuna hobetzea ingurunean, efizientzia energetikoa eta eraikuntza-baldintza berriak ezartzea.

2021eko uztailaren 20an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (136. zk.) argitaratu zen xehetasun-azterketa honen hasierako onespenaren erabakia, eta espedientea jendaurrean jarri zen, legez ezarritako epean.

Jendaurrean jartzeko epean, ez zen alegaziorik

I

PARTE RESOLUTIVA

COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO.

**6. Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la Parcela b.20.1 del Ámbito Urbanístico IB.09 Goienetxe.**

“La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 13 de julio de 2021, acordó aprobar inicialmente el Estudio de Detalle de referencia.

El objeto del Estudio de Detalle es construir una nueva edificación en la parcela mencionada ( Edificio IOM-ERAIKINA). Esta actuación tiene dos objetivos: poder promover la Formación Profesional Básica adaptada a personas con discapacidad y ampliar su División de Servicios.

Para ello se propone realizar determinados ajustes en la parcela, tales como, modificación de la ocupación en planta de las zonas b.20 1 / 4 y 20.1 /5 , trasvase de edificabilidad, modificación del perfil edificatorio, mejora de la accesibilidad en el entorno, eficiencia energética y nuevas condiciones de edificación.

Con fecha 20 de julio de 2021 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa ( n.º 136) el citado acuerdo de aprobación inicial del Estudio de Detalle, sometiéndose el expediente a información pública por el plazo legalmente establecido.

Durante el plazo de exposición pública no se

aurkeztu.

presentaron alegaciones.

Dokumentu teknikoari ( 2021eko ekaina) buruzko txostena egin zen, eta honako hauek eskatu ziren:

El documento técnico ( junio 2021) se sometió a informe y se recabaron los siguientes:

* Arkitektura: 2021eko ekainaren 14an.

* Arquitectura: 14 de junio de 2021.

*Juridikoa: 2021eko azaroaren 22an

* Jurídico: 22 de noviembre de 2021.

Hasierako onespena emateko, zenbait dokumentu aurkeztu ziren, eta arkitekturako hainbat txosten teknikotan egindako oharrak gehitu ziren. Azkenik, 2021eko ekaineko testuari aldeko txostena eman zitzaion hasierako onespenerako. Txostenak ez zuen baldintzarik jarri behin betiko onarpenari begira. Era berean, ez da alegaziorik aurkeztu jendaurreko epean proiektuaren edukia baldintzatu zezakeenik; beraz, ez da dokumentu berririk aurkeztu behar izan.

Para la aprobación inicial se presentaron varios documentos que fueron incorporando las observaciones realizadas en diversos informes técnicos de arquitectura. Finalmente el texto fechado en junio de 2021 fue favorablemente informado para la aprobación inicial sin condición alguna para la definitiva. Tampoco se han presentado alegaciones que pudieran condicionar el contenido del proyecto durante el plazo de información pública, por lo que no ha sido necesario aportar un nuevo documento.

Espedientean jasota daude Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena (2021/04/08) eta generoaren araberako eraginari buruzko txostena idaztetik salbuesteko txostena.

Constan en el expediente informe favorable de la Dirección General de Aviación Civil (08/04/2021) e informe sobre exención de redactar informe de impacto por razón de género.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezkoa da behin betiko onartzea.

Teniendo en cuenta cuanto antecede y de conformidad con lo establecido en el artículo 98 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, procede su aprobación definitiva.

Hori dela eta, Udalbatzak hau

En base a lo anteriormente expuesto, el Pleno del Ayuntamiento

E R A B A K I  D U

A C U E R D A

1º.- Behin betiko onartzea Donostiako udal-mugartean dagoen (2021eko ekaineko testua) “IB.09 Goienetxe” hirigintza-eremuko “b.20.1” lursailari buruzko xehetasun-azterlana.

1º.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle para la parcela “b.20.1” del ámbito urbanístico “IB.09 Goienetxe” ( texto junio 2021) en el término municipal de San Sebastián.

2º.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

2º.- Proceder a la publicación del presente

erabaki hau, onartutako dokumentuak berekin dituen arau-xedapen eta guzti.

acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, incluyendo las determinaciones normativas del documento aprobado.

Donostian, 2021eko azaroaren 23an

En San Sebastián, a 23 de noviembre de 2021

ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIO ZERBITZUKO TEKNIKARI JURIDIKOA/
TECNICA JURIDICA DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN
Izpta. / Fdo.: Amaia Gibelalde González

HIRIGINTZA JASANGAGARRIKO ZUZENDARIA/EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña ( por delegación/ eskuordetuta)

HIRIGINTZA SOSTENGAGARRIKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA/LA CONCEJALA DELEGADA DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza”.

Eztabaida hasita, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferré jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Nekane Arzallus Iturriza, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**
**ABSTENTZIOAK: 2 - (1) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**
**ABSTENCIONES: 2 – (1) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**7. Donostiako Añorga "AÑ.01 Atotxa Erreka" hirigintza-eremuan a.500.59 eta a.500.59 bis lursailak birmugatzeari behin betiko onespena ematea.**

**7. Aprobación definitiva del Estudio de Detalle para la redelimitación de las parcelas a.500.59 y a.500.59 bis en el ámbito urbanístico AÑ.01 Atotxa Erreka.**

“Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko martxoaren 30ean erabaki zuen hasierako onarpena ematea goian aipatu Xehetasun-azterlanari.

Xehetasun-azterlan honen xedea da "AÑ.01 Atotxa Erreka" hirigintza-jarduerarako eremuaren birpartzelazio-proiektuaren ondoriozko a.500.59 eta a.500.59 bis lursailak birmugatzea; horrenbestez, aurkeztutako dokumentuak ondoriozko lursailen lerrokadurak eta sestrak adierazi, zuzendu eta osatzen ditu.

2021eko apirilaren 23an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (74. zk.) argitaratu zen xehetasun-azterketa honen hasierako onespenaren erabakia, eta espedientea jendaurrean jarri zen, legez ezarritako epean.

Jendaurrean jartzeko epean, ez zen alegaziorik aurkeztu.

2021eko ekainaren 9an, behin betiko onartzeko dokumentazioa aurkeztu zen, espedientean zeuden txosten teknikoen oharrak erantsita. Dokumentazio hori osatu zen azaroaren 22an eta 30ean DWG formatuko planoak aurkeztearekin.

Dokumentu berriari buruzko txostenak eskatuta honako hauek egin ziren:

* Arkitektura: 2021eko abenduaren 3an.

*Juridikoa: 2021eko ekainaren 21ean.

Txosten horiek behin betiko onarpenaren aldekoak dira.

Espedientean jasota daude Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena

“La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 30 de marzo de 2021, acordó aprobar inicialmente el Estudio de Detalle de referencia.

El objeto del Estudio de Detalle es la redelimitación de las parcelas a.500.59 y a.500.59 bis resultantes del Proyecto de Reparcelación del área de Intervención Urbanística “AÑ.01 Atotxa Erreka”; en consecuencia, el documento redactado señala, rectifica y complementa las alineaciones y rasantes de las parcelas resultantes.

Con fecha 23 de abril de 2021 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa ( n.º 74) el citado acuerdo de aprobación inicial del Estudio de Detalle, sometiéndose el expediente a información pública por el plazo legalmente establecido.

Durante el plazo de exposición pública no se presentaron alegaciones.

Con fecha 9 de junio de 2021 se presentó documentación para aprobación definitiva, incorporándose las observaciones que contenían los informes técnicos obrantes en el expediente. Dicha documentación se completó con la presentación el pasado 22 y 30 de noviembre de planos en formato DWG.

El nuevo documento se sometió nuevamente a informe y se recabaron los siguientes:

* Arquitectura: 3 de diciembre de 2021.

*Jurídico: 21 de junio de 2021.

Los citados informes son favorables a la aprobación definitiva.

Constan en el expediente informe favorable de la Dirección General de Aviación Civil (21/09/2020)

(2020/09/21) eta generoaren araberako eraginari buruzko txostena idaztetik salbuesteko txostena.

e informe sobre exención de redactar informe de impacto por razón de género.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezkoa da behin betiko onartzea.

Teniendo en cuenta cuanto antecede y de conformidad con lo establecido en el artículo 98 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, procede su aprobación definitiva.

Hori dela eta, Udalbatzak hau

En base a lo anteriormente expuesto, el Pleno del Ayuntamiento

E R A B A K I  D U

A C U E R D A

1º.- Donostiako Añorga "AÑ.01 Atotxa Erreka" hirigintza-eremuan a.500.59 eta a.500.59 bis lursailak birmugatzeari buruzko xehetasun-azterlana behin betiko onartzea (2021eko ekainaren dokumentua).

1º.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle para la redelimitación de las parcelas a.500.59 y a.500.59 bis en el ámbito urbanístico “AÑ.01 Atotxa Erreka” ( Añorga) ( documento junio de 2021) del término municipal de San Sebastián.

2º.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, onartutako dokumentuak berekin dituen arau-xedapen eta guzti.

2º.- Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, incluyendo las determinaciones normativas del documento aprobado.

Donostian, 2021eko abenduaren 10ean

En San Sebastián, a 10 de diciembre de 2021

ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIO ZERBITZUKO TEKNIKARI JURIDIKOA/
TECNICA JURIDICA DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN
Izpta. / Fdo.: Amaia Gibelalde González

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZUZENDARIA / EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Izpta. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña ( por delegación/ eskuordetuta)

HIRIGINTZA SOSTENGAGARRIKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA/ LA CONCEJALA DELEGADA DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza”.

Eztabaida hasita, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferré jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Nekane Arzallus Iturriza, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA**

---------------

**8. Donostiako AO.08 Ondarreta Zabalgunea Hirigintza-Eremuaren Hiri-Antolamenduko Plan Bereziari, Ertzaintzaren Ertzain-Etxeko Lurzatiari buruzkoa, behin betiko onarpena ematea.**

“Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak sustatuta, Donostiako "AO 08 Ondarreta zabalgunea" hirigintza-eremuan ertzain-etxeko lurzatiari buruzko Hiri-antolamenduko Plan Berezia aurkeztu zen, bere izapide eta onarpenerako.

Plan Bereziaren xedea da Ertzaintzaren Ondarretako ertzain-etxearen lurzatiaren eraikigarritasuna handitzea, solairu bat zabaldu eta beste bi solairu egin ahal izateko, bulegoaren, aldagelen eta jendeari arreta emateko aretoen hedapen-premiei erantzun ahal izateko; batez ere, genero-indarkeriako kasuei dagokienez. Bestalde, eraikinaren zahartzeak berak eragindako berrikuntzak ere egitea da helburu.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariaren 2020ko

**8. Aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana. Ámbito Urbanístico AO.08 Ensanche de Ondarreta relativo a la Comisaría de la Ertzaintza.**

“Promovido por el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco se presenta para su tramitación y aprobación el Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito urbanístico “AO 08 Ensanche de Ondarreta” de San Sebastián, relativo a la parcela de la Comisaría de la Ertzaintza

El objeto del Plan Especial es incrementar la edificabilidad de la parcela de la Comisaría de la Ertzaintza en Ondarreta para permitir llevar a cabo la ampliación de una de las plantas y la ejecución de otras dos plantas que permitan atender a las necesidades de expansión de la oficina, vestuarios y salas de atención al público, especialmente en relación con los casos de violencia de género; además de las reformas derivadas del propio envejecimiento del edificio.

Mediante Resolución de 21 de febrero de 2020 del Director de Administración Ambiental del Gobierno

otsailaren 21eko Ebazpenaren bidez, Planaren ingurumen-txosten estrategikoa egin zen ( esp. EAES 266). Bertan adierazten denez ingurumenean ondorio kaltegarrinabarmenik izango ez dela aurreikusi zen. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2020ko martxoaren 12an (50. zk.).

Vasco, se formula informe ambiental estratégico del Plan ( exp. EAES 266), determinando que no se prevé que vaya a producirse efectos adversos significativos sobre el medio ambiente. La resolución fue publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de fecha 12 de marzo de 2020 ( n.º 50).

Dokumentua generoaren ikuspuntutik ebaluatu zen (generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren egiaztapen-txostena, 2020ko ekainaren 5ekoa). Gizarte- eta hizkuntza-txostena ere badago, 2019ko apirilaren 10ean egindakoa.

El documento fue evaluado desde el punto de vista del género (informe verificación de evaluación de impacto de género de fecha 5 de junio de 2020). También consta informe socio-lingüístico de fecha 10 de abril del 2019.

Tokiko Gobernu Batzordeak 2020.ko ekainaren 23.an ospatutako bileran, honako akordio hau haru zuen:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 23 de junio de 2020, adoptó el siguiente acuerdo:

“1.- Donostiako "AO 08 Ondarreta zabalgunea" hirigintza-eremuan ertzain-etxeko lurzatiari buruzko Hiri-antolamenduko Plan Bereziari hasierako onarpena ematea.

1º.- Aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito urbanístico “AO 08 Ensanche de Ondarreta” de San Sebastián, relativo a la parcela de la Comisaría de la Ertzaintza

Behin betiko onartu aurretik, ordea, beste testu bateratua aurkeztu beharko da, Udalaren Zerbitzu Teknikoek adierazitako baldintzak jasoko dituenak, alegia.

Con carácter previo a su aprobación definitiva se deberá presentar un nuevo documento que contenga las condiciones señaladas por los Servicios Técnicos Municipales.

2.- Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea, alegazioak egiteko bidea izan dadin.”

2º.- Someter el expediente a información pública por plazo de veinte días al objeto de que se puedan formular alegaciones.”

Espedientea jendaurrean egon den bitartean, alegazio hauek aurkeztu dira:

Durante el plazo de exposición pública se han presentado las siguientes alegaciones:

*Olatz Mercader Echave. Espedientea ikusteko aukerari buruz alegatzen du. 2020.ko abuztuaren 3.an espedientea ikusteko komunikazio bat igortzen zaio. Espedientea ikusi eta gero, dagokion alegazioa aurkezten da (Ondarreta Komunitate Orokorra A-15

*Olatz Mercader Echave. Alega sobre el acceso al expediente. El 3 de agosto de 2020 se le remite comunicación sobre cómo acceder al mismo. Tras el acceso al mismo, se presenta la correspondiente alegación (Comunidad General Ondarreta Bloque A-15).

blokea).

*Ondarreta Komunitate Orokorra A-15 blokea: Plan Bereziaren egokitasuna zalantzan jartzen dute, interes publikoa ez dagoela aipatzen dute, Departamentu guztiek txostena ez dutela egin diote, gai ekonomikoak aipatzen ditu eta eraikinaren balore arkitektonikoa goraipatzen dute.

*Comunidad General Ondarreta Bloque A-15: Cuestionan la idoneidad del Plan Especial, argumentan ausencia de interés público, señalan que no ha sido informado por todos los Departamentos competentes, menciona temas económicos y defienden el valor arquitectónico del edificio.

Aurkeztutako alegazioei buruz, honako udal txostenak idatzi dira:

Sobre las alegaciones presentadas, se han redactado los siguientes informes municipales:

*Ekonomikoa: 2020.ko azaroaren 10.an.

*Económico: 10 de noviembre de 2020.

*Juridikoa: 2020.ko azaroaren 25.an.

*Jurídico: 25 de noviembre de 2020.

*Arkitektura: 2021.eko urtarrilaren 26.an.

*Arquitectura: 26 de enero de 2021.

2021.eko ekainan behin betiko onarpenerako dokumentu bat aurkezten da. Arkitektra eta ekonomiako kontrako txostenen ondorioz, 2021.eko azaroko dokumentu berri bat aurkezten da.

En junio de 2021 se presenta un documento para su aprobación definitiva. Como consecuencia de los informes desfavorables de arquitectura y economía, se presenta un nuevo documento fechado a noviembre de 2021

Dokumentuaren behin betiko onespenari begira, honako txosten tekniko hauek egin dira:

De cara a la aprobación definitiva del documento se han emitido los siguientes informes técnicos:

- Arkitektura: 2021.eko abenduaren 16.an.

-Arquitectura: 16 de diciembre de 2021.

- Ekonomikoa: 2021.eko abenduaren 2.an.

-Económico: 2 de diciembre de 2021.

-Juridikoa: 2021.eko azaroaren 16.an

-Jurídico: 16 de noviembre de 2021.

-Ingeniaritza: 2021.eko azaroaren 18.an.

- Ingeniería: 18 de noviembre de 2021.

-Mugikortasuna: 2021.eko azaroaren 15.an

-Movilidad: 15 de noviembre de 2021.

Horrenbestez, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 97. artikuluak eta bete behar diren gainerako aginduek jartzen dutena aintzakotzat hartu eta izapidetu egin behar da plana.

Procede, en consecuencia su tramitación, de conformidad con lo establecido en el artículo 97 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y demás preceptos de aplicación.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta TokiAraubidearen Oinarrien gaineko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzen duena aintzakotzathartuta, Donostiako udalbatzak

E R A B A K I D U

1.- Aurkeztutako alegazioak bere osotasunean ez onartzea.

2.- Donostiako "AO 08 Ondarreta zabalgunea" hirigintza-eremuan ertzain-etxeko lurzatiari buruzko Hiri-antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea.

3.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

Donostian, 2021.ko abenduaren 17.an

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/85 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

A C U E R D A

1.- Desestimar en su totalidad las alegaciones presentadas.

2.- Aprobar definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito urbanístico “AO 08 Ensanche de Ondarreta” de San Sebastián, relativo a la parcela de la Comisaría de la Ertzaintza

3.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del plan.

En San Sebastián, a 17 de diciembre de 2021.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZUZENDARIA / EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Izpta. / Fdo.: PA. Juan Carlos Cuevas Argandoña

HIRIGINTZA SOSTENGAGARRIKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA /
LA CONCEJALA DELEGADA DE URBANISMO SOSTENIBLE
Izpta. / Fdo.: Miren Nekane Arzalluz Iturriza”.

Eztabaida hasita, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferré jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Nekane Arzallus Iturriza andreak, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

---------------

**OGASUN BATZORDEA**

**9. Arau proposamena, EH BILDU taldeak aurkeztua, Udal ondarearen ordenantza osatzeko.**

“EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak ARAU PROPOSIZIORAKO EKIMEN hau aurkezten du, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikuluak oinarri, udal ondarearen ordenantza osatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan, Donostiako Udalaren jabetzakoak diren zenbait eraikini aldi baterako izen komertzialak jartzeko joera zabaltzen ari da. Horren adibide dira Anoeta estadioari Reale izena jarri izana edota Donostia Kultura enpresa erakunde publikoak beste hainbeste egin izana Victoria Eugenia antzokiarekin (FCC Gunea) eta San Telmo museoarekin (Škoda).

Iazko azaroan, EH Bilduk galdetu egin zion Ogasuneko zinegotziari zer arauditan oinarritzen

**COMISIÓN DE HACIENDA**

**9. Iniciativa de proposición normativa, presentada por el grupo EH BILDU, para la elaboración de una Ordenanza sobre patrimonio municipal.**

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo de los artículos 90 y 91 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene a bien presentar la siguiente INICIATIVA DE PROPOSICIÓN NORMATIVA, para la elaboración de una ordenanza del patrimonio municipal.

JUSTIFICACIÓN

En los últimos años se observa una tendencia cada vez mayor de dotar de nombres comerciales temporales a algunos edificios propiedad del Ayuntamiento de San Sebastián. Ejemplo de ello es que el estadio de Anoeta se llame Reale o el hecho de que la entidad pública empresarial Donostia Kultura lo haya hecho con el teatro Victoria Eugenia (FCC Gunea) y con el museo San Telmo (Škoda).

En noviembre del pasado año, EH Bildu preguntó al concejal de Hacienda respecto a la normativa en

den Ondare atala udal eraikinak izendatzeko, eta zer baldintza ezartzen dituen araudi horrek eraikinen izendapenaren inguruan; zinegotziak erantzun zuen ez dagoela horrelakorik. Donostia Kulturako Administrazio Kontseiluan ere galdetu genuen horren inguruan, eta emandako erantzunen arabera, ez da inon idatziz jasota utzi STMren eta VEren izenak behin-behinean aldatzeko erabakia, ezta erabaki hori hartzeko kontuan hartutako aldeko eta kontrako argudiorik ere; ahoz hartutako konpromiso komertzial bat izan omen da.

la que se basa la Sección de Patrimonio para la denominación de edificios municipales, así como sobre las condiciones que dicha normativa establece para la denominación de edificios, a lo que el concejal contestó que no existe. Tras preguntar al respecto en el Consejo de Administración de Donostia Kultura, las respuestas dadas indican que en ningún momento se ha dejado constancia escrita de la decisión de modificar provisionalmente los nombres de STM y VE, ni de los argumentos a favor y en contra que se habían tenido en cuenta para su adopción, sino que se trata de un compromiso comercial adquirido verbalmente.

EH Bildu udal taldearen ustez, ez da zilegia ondare publikoaren parte diren eraikinei izena aldatzea izendapen komertzial bat jartzeko, behin-behinean bada ere, Udaleko Ondare atalak irizpiderik gabe. Ez da egokia herritarren memoria kolektiboan sakon errotuta dauden izenak aliritzira erabiltzea, aldian-aldiko erabaki arbitrarioen mende. Gure ustez, hori gertatzea ahalbidetzen du Donostiako Udalak bere ondarea kudeatzeko ordenantzarik ez izateak.

El grupo municipal EH Bildu considera que no es lícito cambiar el nombre de los edificios que forman parte del patrimonio público por una denominación comercial, aunque sea provisionalmente, sin criterio de la Sección de Patrimonio del Ayuntamiento. No es adecuado utilizar de cualquier manera nombres profundamente arraigados en la memoria colectiva, y más supeditados a decisiones arbitrarias puntuales. Entendemos que esto llega a suceder porque el Ayuntamiento de San Sebastián no dispone de una ordenanza para gestionar su patrimonio.

Aipatu guztiagatik, hau da EH Bildu udal taldeak Udalbatzak hartzeko proposatzen duen:

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu propone el siguiente:

ERABAKIA

- Donostiako Udalaren Ondarearen ordenantza osatzea ontzat ematea, arautze berri baten bidez araudian jasotzeko Donostiako Udalaren jabetzakoak diren eraikinen eta ondarearen inguruko kudeaketaren inguruko irizpideak eta beharreko alderdiak.

ACUERDO

- Aprobar la elaboración de la ordenanza del patrimonio del Ayuntamiento de San Sebastián para incorporar en la normativa, mediante una nueva regulación, los criterios y aspectos necesarios en relación con la gestión de los edificios y del patrimonio propiedad del Ayuntamiento de San Sebastián.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7an

San Sebastián, 7 de enero de 2022

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.

Reyes Carrere Zabala,
portavoz del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, parte hartu dute puntu honetan, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Kerman Orbegozo Uribe jaunak, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D. Kerman Orbegozo Uribe, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**10. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura-bonuei buruz.**

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat

**10. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre los bonos de cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN

hartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kultura bonuen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu behar dio Udalbatzari, osoko bileran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Iazko abenduaren hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak kanpaina bat aurkeztu zuen prentsaren aurrean. Aldundiaren webgunean jartzen duenez, Kultura Departamentuak kulturaz gozatzea sustatu, saritu eta fidelizatu nahi du, eta kultur edukien merkataritza eta banaketa sarea indartu, liburu dendek kultura produktuen eskaintza zabala baitute, Gipuzkoa bezalako gizarte moderno eta multikultural bati dagokion bezala.

Kanpaina abenduaren 3an hasi zen, eta urtarrilaren 29an amaituko da, eta Gipuzkoako 64 establezimendu atxiki dira. Hala, 80.000 euroko diru sail bat jarri du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak, eta 8.700 kultura bonu jarri ditu salgai, literatura, musika eta zinema erosteko.

Horra arte, ederki dena. Kultura sustatzea gauza beharra da, eta laguntzak oso ondo hartzen dituzte herritarrek. Izan ere, “lortu nahi dugu bonua ahalik eta pertsona gehienek baliatu ahal izatea literatura, musika eta zinema erostera animatuz” esan zuen Harkaitz Millan Kulturako diputatuak Kultura bonua aurkeztekoan.

Baina, leitu dezagun gipuzkoar guztien –euskaraz hitz egiten dutenen eta ez dutenen– diruarekin pagatzen den ekimen honen letra txikia; zeren, euskarazko kultura-produktuentzako hobaria 12 € izan daiteke, 20 € baino gehiagoko erosketa egiteagatik, eta beste hizkuntza batzuetako kultura-

ORDINARIA para su debate en el Pleno, sobre los bonos de cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

JUSTIFICACIÓN

Al inicio de diciembre del pasado año el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa presentó en rueda de prensa una campaña con la que, según reza en la web de la Diputación, se “pretende estimular, premiar y fidelizar el disfrute de cultura y fortalecer a la red comercial y distribuidora de contenidos culturales como librerías que ofrecen una variada oferta de productos culturales como corresponde a una sociedad moderna y multicultural como es la guipuzcoana.

Esta campaña comenzó el pasado 3 de diciembre y finalizará el próximo 29 de enero y a la que se han adherido 64 establecimientos de Gipuzkoa. Una partida, la que ha habilitado el Departamento de Cultura de Diputación de Gipuzkoa, de 80.000 € con la que se han puesto a la venta 8.700 bonos culturales para comprar en librerías de literatura, música y cine.

Hasta ahí, todo perfecto. Fomentar la cultura es más que necesario y las ayudas son muy bien recibidas por los ciudadanos. De hecho, y según las declaraciones realizadas por el Diputado de Cultura, Harkaitz Millan, en la presentación de la iniciativa “con el Bono Kultura pretendemos que se beneficien el mayor número de personas animándoles a comprar literatura, música y cine”.

Pero hay que leer la “letra pequeña” de esta iniciativa que se sustenta con el dinero de todos los guipuzcoanos, hablen o no euskera. La bonificación para los productos culturales en euskera es de hasta 12 € por una compra superior a 20€, mientras que la bonificación para los productos culturales en otros idiomas, incluido el

produktuentzako hobaria –gaztelania tartean, eta hizkuntza ofiziala da gaztelania Euskal Autonomia Erkidegoan– 8 €, 20 eurotik gorako erosketa egiteko.

Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko Legeak, ordea, zera jartzen du: “Euskara euskal herriaren hizkuntza propioa izateak eta gaztelaniarekin batera hizkuntza ofizial izateak, arrazoi bat ala beste dela-eta euskara erabili ezin duten herritarren eskubideei inongo kalterik ez die ekarri behar, inondik inora, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6, artikuluaren 3. zenbakian propio esaten denarekin bat”.

Euskal Herriko herritar guztiak integratzeko elementua da hizkuntza, eta ez da erabili behar euskaraz hitz egiten duten edo ez duten herritarrak apartatzeko. Kultura bonu hauek, ordea, hala egiten dute, produktuak euskaraz erosten dituzten pertsonei mesede eta euskaraz ekoizten duten enpresei laguntzen diete eta.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari eskatzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen arteko bereizkeriarik ez egiteko Kultura bonuaren kanpaina eta horrelako kanpainak egitekoan.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 7an

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”.

castellano, que es lengua oficial también en el País Vasco, es de 8€ para una compra superior a 20€.

Según la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera: “El carácter del euskera como lengua propia del Pueblo Vasco y como lengua oficial junto con el castellano, no debe comportar, en ningún caso, menoscabo de los derechos de aquellos ciudadanos que por diversos motivos no pueden hacer uso de ella conforme a lo establecido expresamente en el número 3 del artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco”.

La lengua es “un elemento integrador de todos los ciudadanos del País  Vasco” y no se debe utilizar para discriminar entre los ciudadanos que hablan o no euskera, como es el caso de estos bonos culturales en los que se beneficia a aquellas personas que compren los productos en euskera, y benefician a las empresas cuya producción se realiza en euskera.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa a que no discrimine entre ambas lenguas oficiales del País Vasco a la hora de poner en marcha campañas culturales como la del Bono Kultura.

En San Sebastián, a 7 de enero de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Alkate-Udalburuak

parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Ane Oyarbide Ochoa, D. Zigor Etxeburua Urbizu, D. Jon Insausti Maisterrena y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 1 - EAJ/PNV, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 22 – (9) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 1 - EAJ/PNV, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA:**

---------------

**11. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Atotxako geltokiko behin-behineko oinezkoentzako pasabidetik multzo elektrogenoa lekualdatzeari buruzkoa.**

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Atotxako geltokiko behin-behineko zubibideko ekipo elektrogenoaren gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu behar dio Udalbatzari, osoko bileran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Abiadura handiko trenaren obrak direla eta, oinezkoentzako pasabide bat jarri du ETSk Frantziako pasealekuko 21. zenbakiaren eta Blas de Otero plazaren artean, eta 2024ko urtarrilera arte jarrita izango dela uste du hark 51,2 metro luze eta 3 metro zabal dituen

**11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el traslado del grupo electrógeno de la pasarela peatonal provisional de la estación de Atotxa.**

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA para su debate en el Pleno, sobre el traslado del grupo electrógeno de la pasarela peatonal provisional de la estación de Atotxa.

JUSTIFICACIÓN

La pasarela peatonal provisional, cuya duración está prevista hasta enero de 2024, ubicada entre el número 21 del paseo de Francia y la plaza Blas de Otero, colocada por ETS en la estación de Atotxa por las obras del Tren de Alta Velocidad, consta de dos vanos con una longitud total de

pasabidea hori. Bi igogailu ere baditu pasabideak, alde banatan bat. Hiriaren erdigune aldera denak 7,3 metroko desnibela gainditzen du, eta Egia aldera denak 5,6 metrokoa. Argiek eta bideozaintza sistemak osatzen dute hizpide dugun azpiegitura.

Pasabidearen azpian, ordea −haren ondotik metro bat-edo besterik ez dela−, ekipo elektrogeno bat dago jarrita. Usain txarra eta zarata handia ateratzen du hark etengabe, eta endredo handia eragiten die bizilagunei.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eskatzen dio, ETSren bidez, tokiz aldatzeko ekipo elektrogeno hori.

Donostian, 2021eko azaroaren 30ean

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

51,2 metros y una anchura de 3 metros. Está dotada de ascensores en ambos lados, que salvan un desnivel de 7,3 metros en el lado centro y 5,6 metros en el lado Egia. El resto de instalaciones, como la iluminación y el sistema de videovigilancia, completan la infraestructura del paso superior.

Debajo de la pasarela, a un metro escaso de distancia, hay un grupo electrógeno que genera malos olores y ruidos muy fuertes y constantes, provocando molestias a los vecinos.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco, a través de ETS, a que cambie la ubicación del grupo electrógeno.

En San Sebastián, a 30 de noviembre de 2021

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D. Borja Corominas Fisas y D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, 1 PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK; (3) ELKARREKIN DONOSTIA, 1 PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, 1 POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA; (3) ELKARREKIN DONOSTIA, 1 POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**12. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Eskola-Kiroleko lehiaketak berreskuratzeari buruzkoa.**

**12. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre restablecimiento de las competiciones de Deporte Escolar.**

**KENDUA**

**RETIRADA**

---------------

**13. Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Urumea ibaiko isurketen garbiketa dela eta.**

**13. Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la limpieza de los vertidos en el río Urumea.**

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu Urumea ibaira botata dauden gauzak handik ateratzearen gaineko MOZIO hau aurkeztu du, UDALBATZAREN OSOKO BILERAN EZTABAITZATEKO.

“Aitzole Araneta, Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre la limpieza de los vertidos en el río urumea.

JUSTIFIKAZIOA

Orain dela gutxi, Eguzki talde ekologistak bere sare sozialen bidez salatu zuen zabortegi bat zegoela Urumea ibaian urpean, Mundaizko zubiaren eta Maria Kristina zubiaren artean. Haiek zabaldutako bideoan, pertsona batek erakusten du ehunka objektu daudela pilatuta (somierrak, aulkiak, bizikletak, lisatzeko mahaiak, sukaldeak eta hamabost bat komunontzi, besteak beste) ibaiaren ezkerraldean.

JUSTIFICACIÓN

Recientemente el grupo ecologista Eguzki denunció a través de sus redes sociales la existencia de “un vertedero submarino” en el río Urumea, entre los puentes de Mundaiz y el de María Cristina, en Donostia. En el vídeo difundido se puede ver como una persona muestra que “en la margen izquierda del río se acumulan cientos de objetos como somieres, sillas, bicicletas, mesas para planchar, cocinas y hasta una quincena de inodoros”.

Donostiak arrisku handia du klima-aldaketaren ondorioek erasateko, eta dagoeneko adierazia du klima larrialdia; beraz, onartezina da baldintza horietan edukitzea gure hiritik pasatzen den ibaia. Horregatik, derrigorra da gai honetan eskumena duten erakunde guztiak inplikatzea egoera hori lehenbailehen konpontzeko.

Hori dela eta, hauxe da guk dakargun

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Itsasertzen Zerbitzu Probintzialari, Ura uraren euskal agentziari eta gai honetan eskumenen bat duten erakunde guztiei garbitzeko eta/edo finantzatzeko Urumea ibaia Donostiako partean garbitzeko egin behar diren lanak.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeei handitzeko zaintza-lanak, Urumea ibaira ezer ere bota ez dadin.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7a

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea".

En una ciudad como Donostia, sensible a los efectos del cambio climático y con una emergencia climática declarada, es inadmisible mantener en esas condiciones el río que atraviesa por nuestra ciudad. Por eso, es necesario implicar a todas las instituciones competentes en la materia para resolver esta situación cuanto antes.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al Servicio Provincial de Costas en Gipuzkoa, a La Agencia Vasca del Agua URA y a todas la instituciones competentes en la materia a llevar a cabo y/o financiar los trabajos de limpieza necesarios en el río Urumea en Donostia.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al resto de instituciones con competencias al respecto a aumentar los trabajos de vigilancia para evitar vertidos en el Río Urumea.

Donostia, a 7 de enero de 2022

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Portavoz de Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK 13. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 13 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**13. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

## II.2

## KONTROL MOZIOAK

### II.2.1. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Donostiako autobus geltokiko segurtasun ezari eta lapurreten gorakadari buruz.

“Jorge Mota Iglesias Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Donostiako autobus-geltokiko segurtasun-faltari eta lapurreten igoerari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

## II.2

## MOCIONES DE CONTROL

### II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la inseguridad y el aumento de robos en la estación de autobuses de San Sebastián.

“Jorge Mota Iglesias, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la inseguridad y el aumento de robos en la estación de autobuses de San Sebastián.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako autobus-geltokiko erabiltzaileek diotenez, eta baita geltokian jarduten duten lineetako autobus-gidariek eta autobus-geltoki barruan dauden saltokietako langileek diotenez ere, lapurretak eta ebasketak nabarmen ugaritzen ari dira. Lapurretak eta ebasketak ez dira gertatzen soilik saltokietan, baizik eta baita autobusaren zain despistatuta dauden erabiltzaileen maletetan eta dartsenetan bidaiariak hartzeko geratuta dauden autobusen maletategi barruan ere.

Lapurrek jarduteko duten modu horren ondorioz, bidaiariak ez dira lapurretaz jabetzen helmugara iritsi eta maleta maletategian ez dagoela ikusi arte. Lapurretok helmugako komisarian salatzen dituzte, eta, horregatik, delitu horiek ez daude jasota Donostiako Udaltzaingoak egiten dituen estatistiketan. Gainerako ebasketak, hala nola diru-zorroenak, poltsenak eta motxilenak, ez dira salatzen kasu askotan; izan ere, biktimek adierazi digutenez, egin beharreko ahalegina handiagoa da horrek dakarren onura baino.

Baina salaketarik ez jartzeak ez du esan nahi ebasketarik gertatzen ez denik. Joan den 17an izandako Batzordean, Herri Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak onartu zuen egia zela azaldutakoa, eta autobus-geltokiko jarduerei buruzko datu zehatzak eman zituen: Udaltzaingoak 175 zerbitzu egin ditu (ia zerbitzu bat bi egunean behin), eta Ertzaintzak beste hainbeste. Hiriko gune kritikoa da, eta ez da jarduten soilik salaketen ondorioz, baizik eta baita prebentzioz ere; gainera, polizia-zerbitzu

JUSTIFICACIÓN

Según manifestaciones de los usuarios de la Estación de Autobuses de San Sebastián, incluso de los propios conductores de los autobuses de las distintas líneas que operan en la misma, y de los trabajadores de los diferentes comercios existentes en el interior de la estación de autobuses, se está produciendo un importante incremento de robos y de hurtos. Robos y hurtos que se producen no sólo en los comercios existentes, también de las maletas de usuarios que están despistados esperando a sus autobuses, e incluso del interior de los porta maletas de los autobuses que se encuentran estacionados en las dársenas recogiendo a los pasajeros.

Este último proceder de los ladrones hace que los viajeros no se den cuenta del robo de sus pertenencias hasta que llegan a destino, al ver que su maleta no está en el porta maletas. Las denuncias de estos robos se llevan a cabo en las comisarias de destino, motivo por el cual no constan estos delitos en las estadísticas que elabora la Guardia Municipal de San Sebastián. El resto de hurtos de carteras, bolsos, mochilas etc..., en muchos casos, no son denunciados, ya que según nos cuentan las víctimas de éstos, el esfuerzo va a ser mayor que los beneficios.

Pero el hecho de no ser denunciados, no quiere decir que no se den. En la Comisión del pasado día 17, el concejal Delegado de Seguridad Ciudadana asumía que lo expuesto era real, y aportaba datos concretos de actuaciones en la Estación de Autobuses: 175 servicios de la Guardia Municipal (casi un servicio cada dos días) más otros tantos realizados por la Ertzaintza. Es una zona crítica de la ciudad en la que no sólo se realizan actuaciones por denuncia, sino que

iraunkorra dago hor.

Arrazoi horiek guztiak kontuan izanda, normala da merkatariek eta erabiltzaileek adieraztea segurtasunik ezaren sentsazioa gero eta handiagoa dela, borrokak etengabeak direla, haiek halakoetan indargabe sentitzen direla eta beldur direla. Emakidadunari segurtasun pribatua jartzeko eskatzen diote; gainera, Donostiako autobus-geltokia eraiki eta ustiatzeko zerbitzu publikoaren emakidadunaren baldintza-agiriaren klausuletako bat da hori; hain zuzen ere, erabilera-araubidearen 31. klausulak honela dio:

“Ordutegia, gutxienez, 07:00etatik 23:00etara izango da, eta lizitatzaileek, kudeaketa-planaren barruan, ordutegi zabalago bat proposatu ahal izango dute, muga bakar batekin: geltokia erabilera publikorako itxi beharra dagoen denbora, gutxienez, bi ordukoa. Etengabeko zaintza izan beharko du, zorrotzagoa erabilera-ordutegian. Edonola ere, lizitatzaileek kudeaketa-planean proposatu ahal izango dituzte Udaltzaingoarekin koordinatzeko neurriak, etengabeko zaintza hori bermatzeko.

Eta 44. klausulak (Emakidadunaren funtsezko betebeharrak), 4. puntuan, honela dio: "Bereziki zaintzea autobus-geltokiko eta haren instalazioetako zaintza, eta, hala badagokio, behar diren langileak jartzea, zerbitzuak segurtasun- eta eraginkortasun-baldintza egokiak izan ditzan, erabiltzaileei eragozpenik, arriskurik edo gorabeherarik gerta ez dakien”.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen dugu Donostiako Udalak neurri eraginkorrak har ditzan gero eta handiagoa den segurtasunik ezaren

también se realizan actuaciones preventivas y existe un servicio de policía permanente.

Por todas esta razones, es normal que comerciantes y usuarios, nos trasladan una creciente sensación de inseguridad, con continuas peleas, en las que se sienten impotentes y temerosos. Demandan a la concesionaria que ponga seguridad privada, cuando además aparece como una de las cláusulas del Pliego de Condiciones del concesionario del servicio público para la construcción y explotación de la Estación de Autobuses de Donostia-San Sebastián, donde dice textualmente en la clausula 31 de régimen de uso:

“Su horario mínimo será de 7.00 a 23.00 horas, pudiendo proponer los licitadores, dentro del Plan de Gestión cualquiera superior con un único límite: el necesario cierre de la Estación para el uso público durante, al menos, dos horas. Deberá disponer de vigilancia permanente, más intensa durante su horario de utilización, sin perjuicio de que los licitadores puedan proponer, en su Plan de Gestión, medidas de coordinación con la Guardia Municipal para garantizar tal vigilancia permanente”.

Y en la cláusula 44. Obligaciones Esenciales del Concesionario, punto 4 “Cuidar especialmente de la vigilancia de la Estación de Autobuses y sus instalaciones, y dotar al mismo, en su caso, del personal necesario para que el servicio goce de las debidas condiciones de seguridad y eficacia, evitando a los usuarios cualquier incomodidad, peligro o eventualidad”.

Por todo ello consideramos necesario y urgente que el Ayuntamiento de San Sebastián tome medidas efectivas para frenar la creciente percepción de inseguridad, el incremento de

pertzepzioa eta lapurretak, ebasketak eta borrokak geldiarazteko, batez ere kontuan izanda autobus-geltokia arautzen duen baldintza-agirian eskatzen dela zaintza pribatua jartzea, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak egindako lanaren osagarri, eta emakidadunak ez duela baldintza hori bete geltokia inauguratu zenetik.

Hori dela eta, hau da gure

KONTROL-MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari baldintza-agiria betetzeko galdegin diezaiola Donostiako autobus-geltokia ustiatzeko zerbitzu publikoaren emakidadunari, espazio hori erabiltzaile eta langileentzako gune segurutzat jo ahal izan dadin.

2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari emakidadunarekin batera lan egiteko, Donostiako autobus-geltokiko erabiltzaileen eta langileen segurtasuna bermatze aldera.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 19a

Jorge Mota Iglesias
Udal Talde Popularraren bozeramailea".

los robos, hurtos y peleas, máxime cuando en el pliego de condiciones que rige la Estación de Autobuses se exige una vigilancia privada que podría complementar el trabajo realizado por la Guardia Municipal y la Ertzaintza, y que se lleva incumplimiendo por parte del concesionario desde que se inauguró dicha estación.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a exigir al concesionario del servicio público para explotación de la Estación de Autobuses de Donostia-San Sebastián, cumplir el pliego de condiciones para que dicho espacio pueda considerarse una zona segura para usuarios y trabajadores de la misma.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a trabajar de manera conjunta con el concesionario para garantizar la seguridad de usuarios y trabajadores de la Estación de Autobuses de San Sebastián.

San Sebastián, a 19 de enero de 2022

Jorge Mota Iglesias
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Jorge Mota Iglesias jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Marta Huarte Paño, D.ª Olaia Duarte López y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Kontxako pasealekuko barandaren obrei buruz.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Kontxa pasealekuko barandako obrei buruz aztertutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko urrian, Kontxako barandaren lehen zatia ordezteko lanak hasi ziren, Ondarretako tuneletik hasita. Lanok hilabete batzuk geroago amaitu ziren, bidegorriaren zati bat ere egokituta. Lehendik zegoen bidegorriarekin paraleloan, beste bidegorri bat eraiki zuten, hesi zuri ikusgarri batek babestua; espaloia ere handitu zuten, eta zuhaitz berriak landatu, bidegorriaren eta oinezkoentzako pasealekuaren arteko mugan zegoen parterre batean.

Obra eten egin zen COVIDaren ondorioz, eta orain arte ezin izan diote berriz ekin. Nolanahi ere, amaitu zuten Kontxa pasealekuan egin beharreko esku-hartze guztiaren lehen zatia.

Obraren lehen zati horrek 72.650 euroren

**II.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la obras de la barandilla del paseo de la Concha.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular,al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la MOCIÓN presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbano, sobre la obras de la barandilla del paseo de la Concha.

JUSTIFICACIÓN

En Octubre del 2019 se empezaron los trabajos de sustitución del primer tramo de barandilla de la Concha desde el Túnel de Ondarreta. Se finalizó meses más tarde adecuando también parte del bidegorri. Se construyó un nuevo carril bici paralelo al ya existente protegido por una vistosa valla blanca, se amplió la acera y se plantaron nuevos árboles en un parterre que actuaba de frontera entre el carril bici y el paseo peatonal.

La obra se paralizó a causa de la COVID y no se ha podido retomar hasta ahora. En cualquier caso se finalizó el primero de los tramos de la intervención completa del Paseo de la Concha.

Dos años después de que se estrenara el

kostua izan zuen, eta, hura estreinatu eta bi urtera, zinegotzi ordezkariaren erantzunaren arabera, mugikortasun atalak Kontxa pasealekuko hormaren ondoko zintarria eta landaredia kendu beharra dagoela ikusi du (…), autobusak, gurutzatzen direnean, hobeto pasatu ahal izan daitezen. Horren ondorioz, zegoen babesa kendu dute, eta bidegorriaren zati bat zirkulazio-errei bihurtu. Desmuntatze horrek 9.000 €-ko gastua ekarri du.

primer tramo de dicha obra, con un coste de 72.650€, y según respuesta de la delegada, "desde movilidad se comprobó la necesidad de eliminar el bordillo y la vegetación situados junto al muro del Paseo de la Concha (…) y así se mejoraría el tránsito de los autobuses cuando éstos se cruzan". Esto ha hecho que "se desmonte la protección existente convirtiendo parte del bidegorri en carril de circulación". Un desmontaje que ha supuesto un gasto de 9.000€.

Donostiako Udalak berriz egin du. Donostiarrok 81.650 € ordaindu ditugu Kontxako bidegorri berria suntsitzeko eta gero berriro eraikitzeko.

El Ayuntamiento de San Sebastián lo ha vuelto a hacer. Los donostiarras hemos pagado 81.650€ para destrozar el nuevo carril bici de La Concha para así tener la oportunidad de volver a construirlo.

Askotxo dira, jadanik, atalen arteko deskoordinazioaren, planifikaziorik ezaren eta aldrebeskerien adibideak; hori urtean milaka eta milaka euro kostatzen da, eta diru hori donostiarron poltsikotik ateratzen da.

Ya son demasiados ejemplos de descoordinación entre departamentos, de falta de planificación, de torpezas que cuestan muchos miles de euros al año que salen del bolsillo de los donostiarras.

Etorkizunean baliabide publikoko gehiago xahutu ez dadin, hau da gure

Para tratar de evitar en el futuro que se sigan dilapidando los recursos públicos, presentamos la siguiente

KONTROL-MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari, prozesuen auditoretza bat egin dezala, atalen lan egiteko era eta haien artean koordinazioa optimizatzeko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a hacer una auditoría de procesos con el objetivo de optimizar la manera en la que trabajan los diferentes departamentos y la manera en la que se coordinan entre ellos.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari auditoretza horren ondorioak argitaratzeko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a publicar las conclusiones de esa auditoria.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari atalen arteko koordinazio-akatsak eta horiek kutxa publikoetarako izan

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a analizar y hacer públicos los errores de coordinación entre

duten kostua aztertzeko eta argitara emateko.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 19a

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea”.

departamento y el coste que han tenido para las arcas públicas.

En San Sebastián, a 19 de enero de 2022

Borja Corominas Fisas
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (4) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 4 – (3) ELKARREKIN DONOSTIA, 1 EH BILDU PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (4) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 4 – (3) ELKARREKIN DONOSTIA, 1 EH BILDU POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, ostalaritzako terrazen ordenantzako salbuespenei buruz.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO aurkeztu behar dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Ostalaritzako terrazen ordenantzako salbuespenez aurkeztutako interpelazioaren

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre las excepciones en la ordenanza de terrazas de hostelería.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbano, sobre las excepciones en la ordenanza de terrazas de hostelería.

ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

'Ziurgabetasun etengabekoa', 'eguna datuei begira pasatzen dugu' eta horrelako kontuak esan zituen alkateak Gune Publikoen Batzordeak hilaren 17an izan zuen bileran hirian dugun osasun egoera honen gainean hitz egitekoan, Terrazen ordenantzan salbuespen batzuk egiteko epea luzatzeko dekreturen bat sarri-sarri sinatu beharra ekartzen baitio egoera horrek.

Era berean, alkateak ziurtatu zuen urtarrilaren 28tik aurrera ere luzatuko direla, ziur aski, neurri murriztaile horiek, eta neurri murriztaile horiek eta osasun larrialdia adierazita diren bitartean izango dela indarrean hark sinatutako ebazpena.

Covid-ak kutsatutako pertsonen kopurua esponentzialki handitu da gure hirian, Euskadin, Espainian eta munduan, eta dagoeneko inork ere ezin du aurreikusi datozen hilabeteetan zer gertatuko den. Hildako pertsonak, zoritxarrez, lehen baino gehiago dira berriro ere, eta orain dela egun batzuk irakurri genuen Euskal Autonomia Erkidegoan 78 pertsona hil zirela Covid-ak jota, azkeneko hamaika hilabeteetako kopururik handiena.

Eta datu horiek guztiek erakusten dutena da berehala bukatzeko itxurarik ez duen pandemia dugula hau, eta herritarren egunerokotasuna eta aisialdia kontsumitzeko modua aldatu egin dituela. Gero eta herritar gehiago da aire zabalean egotea nahiago duena, terrazetan-eta, ostalaritza establezimenduen barruan baino. Kutsatzeko beldurra hor dago, eta bistan dago aldatu egin direla lehen genituen kontsumo ohiturak.

JUSTIFICACIÓN

“Incertidumbre permanente”, “nos pasamos los días mirando los datos” son las palabras que el Alcalde utilizó en la pasada Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanas, que tuvo lugar en pasado lunes 17 de enero, al referirse a la situación sanitaria que estamos viviendo y que está motivando que se tenga que firmar cada pocos meses un decreto con el que prorrogar la situación de excepción relativa a la ordenanza de terrazas.

En la misma línea el Alcalde también aseguró que “previsiblemente” las medidas restrictivas se van a prolongar más allá del 28 de enero y que la resolución firmada estará en vigor “en tanto en cuanto se sigan produciendo esas medidas restrictivas y la declaración de emergencia sanitaria”.

Los datos de contagiados por el virus del Covid en nuestra ciudad, en Euskadi, en España y en el mundo, se han incrementado de manera exponencial y nadie puede, a estas alturas, predecir qué va a ocurrir en los próximos meses. El número de fallecidos, tristemente, ha vuelto a crecer y hace unos días leíamos el titular “Euskadi registra 78 muertes por Covid, la cifra más alta de los últimos once meses”.

Todos estos son indicadores de una pandemia que parece no tiene visos de acabar pronto y que ha alterado el día a día de los ciudadanos y también su forma de consumir el ocio. Cada vez son más los ciudadanos que prefieren estar al aire libre, en terrazas antes que entrar en los establecimientos hosteleros. El miedo al contagio existe y es evidente que han cambiado nuestros hábitos de consumo.

Ostalaritza sektorea ekonomikoki ukituta dago 2020an pandemia hasi zenetik. Jarritako murrizketa gehienek eragin egin diote, era batera edo bestera, Donostiaren ekonomiaren traktore horri, eta, hala, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu guri ostalaritza establezimenduen terrazak jartzeko hartutako neurri asko behin betiko izatea, eta ez aldi baterako eta alkatearen ebazpenez.

El sector hostelero está “tocado” económicamente desde que comenzó la pandemia en 2020. La inmensa mayoría de las restricciones establecidas han afectado de una u otra manera a este tractor de la economía donostiarra y creemos necesario que muchas de las medidas adoptadas por este Ayuntamiento para la ocupación de las terrazas de los establecimientos hosteleros deberían ser adoptadas definitivamente, no temporalmente y mediante resolución del Alcalde.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por estos motivos presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio hitz emateko Donostiako jabari eta erabilera publikoko lurzorua ostalaritzarako hartzea arautzen duen ordenantza aldatu eta Alkatetzak alarma eta larrialdi garaian hartutako ezohiko neurriak sartuko dituela han.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a comprometerse a modificar la Ordenanza Reguladora de las Ocupaciones de suelo de dominio y de uso público para la hostelería de San Sebastián, con el objetivo de incorporar a la misma las medidas extraordinarias adoptadas por la Alcaldía durante la situación de alarma y emergencia sanitaria.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio udaleko talde guztiei ere emateko txostenak eta ondorioak, teknikarien lan-taldea terrazen gaineko ordenantzaz eta han egin daitezkeen aldaketez egiten ari den bileretatik ateratakoak.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a compartir con todos los grupos municipales los informes y las conclusiones de las reuniones que se están llevando a cabo por el grupo de trabajo de los técnicos en relación a la ordenanza de terrazas y las posibles modificaciones.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 21ean.

En San Sebastián, a 21 de enero de 2022

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia”.

Borja Corominas Fisas
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

--------------

4. eta 10. kontrol mozioak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.º 4 y n.º 10.

**II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Añorgako zeharbidea bulebarizatzeko 2. fasearen emaitzari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko urtarrilaren 17an Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernuak amaitutzat eman ditu Añorgako zeharbidea bulebar bihurtzeko bigarren fasearen lanak. Añorgako bizilagunek udal taldeoi helarazitako mezuan adierazi dutenez, “oso triste eta dezepzionatuta” daude 2. zatiaren emaitzarekin.

2015eko apirilaren 24an, Juan Karlos Izagirreren Udal Gobernuak onetsi egin zuen “Añorgatik igarotzean GI-21 errepidea hirian eta ingurumenean integratzeko gauzatze proiektua”. Proiektu hori bi fasetan egin behar zen. Gauzatze proiektu horretarako administrazio klausulen eta baldintza teknikoen zerrenda 2015eko maiatzaren 22ko Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen. Lehen faseak 3,18 milioi euroko aurrekontua izan zuen, eta bigarren faserako 1,5 milioi euro aurreikusi ziren.

Lanen lehen fasea 2016. uztailean amaitu ziren,

**II.2.4. Moción de control, presentada por el grupo EH BILDU, sobre el resultado de la 2ª fase de bulevarización del paseo de Añorga.**

“El concejal del Grupo EH Bildu, Zigor Etxeburua Urbizu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación analizada en la Comisión de Espacios Públicos el 17 de enero de 2022.

JUSTIFICACIÓN

El Gobierno Municipal ha dado por concluidas las obras de la segunda fase de la transformación de la travesía de Añorga en Bulevar. Sin embargo, en el mensaje hecho llegar por los vecinos de Añorga a los diferentes grupos municipales, señalan que se encuentran muy tristes y decepcionados con el resultado de la 2ª fase.

Con fecha 24 de abril de 2015, el Gobierno Municipal de Juan Carlos Izagirre aprobó el proyecto de ejecución de la integración urbana y ambiental de la carretera GI-21 a su paso por el municipio de Añorga. Este proyecto debía realizarse en dos fases. La relación de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas para dicho proyecto de ejecución fue aprobada por la Junta de Gobierno Local de 22 de mayo de 2015. La primera fase contaba con un presupuesto de 3,18 millones de euros, y la segunda con un 1,5 millón de euros.

La primera fase de los trabajos finalizó en julio

baina bigarren faseari ez zioten 2021eko abuztura arte ekin, bost urte beranduago eta, gainera, aurrekontua heren batera murriztuta (478.821,22 €). 2018ko ekainean, EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen atzerapena eta diru saila murriztu izana salatzeko, eta eskatzeko Eneko Goiaren Udal Gobernuari bigarren fasearen lanak esleitzeko beharrezkoak ziren urratsak eman zitzala berehala, eta egin zezala proiektuaren helburua gauzatzeko beharrezkoak ziren materialen kalitatea murriztu gabe.

de 2016, pero la segunda no se inició hasta agosto de 2021, cinco años después y, además, con una reducción de un tercio del presupuesto (478.821,22 €). En junio de 2018, EH Bildu presentó una moción en la que denunciaba el retraso y la reducción de la partida, y en la que solicitaba al Gobierno Municipal de Eneko Goia que, de forma inmediata, diera los pasos necesarios para la adjudicación de las obras de la segunda fase, sin que hubiera merma en la calidad de los materiales necesarios para llevar a cabo el objetivo del proyecto.

Aipatu bezala, Añorga Txikitarrak Auzo Elkarteko kideek haien etsipena adierazi diote Udalari Añorgako zeharbidea bulebar bihurtzeko bigarren fasearen lanen kalitate eskasarengatik. Jakin bazekiten arren proiektua birdimentsionatu egin zuela Udal Gobernuak eta ez zela bulebarraren lehen zatia bezain txukuna izango, emaitzaren inguruko balorazio oso eskasa egin dute, Udal Gobernuak txapuza handi bat egin duela irizten baitiote. Adierazi dutenez, “Bulebarra amaitua egon arren, probisionala denaren itxura ematen du, material berrerabiliekin eta aurreko marka eta pinturak kendu gabe, argiztapenik jarri gabe eta dena zikin”, eta hasieran aurreikusita zeuden berdegune eta zuhaitzak jarri beharrean aparkalekuak jarrita. Elkarteak zeharbidean egindako lanetan antzemandako gabeziak biltzen dituen txostena osatu du.

Como ya se ha mencionado, los miembros de la Asociación de Vecinos y Vecinas, Añorga Txikitarrak, han expresado su decepción al Ayuntamiento por la escasa calidad de las obras de la segunda fase de transformación de la travesía de Añorga en Bulevar. Aunque sabían que el proyecto fue redimensionado por el Gobierno Municipal y que la 2ª fase del Bulevar no alcanzaría el nivel de la primera, valoran muy poco el resultado, y consideran que el Gobierno Municipal ha hecho una gran chapuza. Señalan que, aunque el Bulevar esté terminado, da la impresión de que es provisional: hay materiales que han sido reutilizados, no se han quitado las marcas y pinturas anteriores, no se ha instalado iluminación y todo está sucio. Además, en lugar de las zonas verdes y el arbolado inicialmente previstos, se han puesto aparcamientos. La Asociación ha elaborado un informe con las deficiencias detectadas en los trabajos realizados en la travesía.

Batzordean, EH Bilduk galdetu zion alkateari Udal Gobernuak nolatan ez dituen txukuntasun handiagoz egin eta amaitu Añorgako zeharbidea bulebar bihurtzeko bigarren fasearen lanak. Era berean, galdetu genion zer egingo duen Udal Gobernuak auzo elkarteak azaleratutako narraskeriak zuzentzeko. Zinegotzi ordezkariak

En la Comisión, EH Bildu preguntó al alcalde por qué el Gobierno Municipal no ha realizado y rematado con mayor esmero los trabajos de la segunda fase de transformación de la travesía de Añorga en Bulevar. Asimismo, le preguntamos qué va a hacer el Gobierno Municipal para corregir las chapuzas

erantzun zuen bulebarizazioaren 2. faseko proiektuak ez zuela jasotzen lehen faseko adinako kalitatezko emaitzarik, baina errematеak falta zirela egindako lanetan.

2020ko otsailean, Udal Gobernuak Altzako Felix Iranzo pasealekuan aparkaleku bat eraikitzeko asmoa iragarri zuen. Handik ia bi urtera, ordea, udal gobernuak aparkalekua egiteko proiektua bertan behera uztea erabaki du, orubean zuntz-zementuzko hondarrak agertu direlako, eta bizilagunei ez die horren ordezko beste ezer eskaini. Gogoratu behar da Altza Osasuntsuagoaren Alde plataformak aparkaleku bat egiteko eskatu zuela, kiroldegiko obren ondorioz Tomasene kultur etxearen ondoan zegoena kendu egin zutela eta. Ordutik, bizilagunek auzoan aparkatzeko arazo larriak dituzte. Batzordean, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen udal gobernuak ez duela inolako alternatibarik eta zaila izango dela horretarako guneak aurkitzea, lehenik eta behin kutsatuta dauden ikusi behar da eta.

En febrero de 2020, el Gobierno Municipal anunció su intención de construir un nuevo aparcamiento en la calle Félix Iranzo de Altza. Casi dos años después del anuncio, sin embargo, el Gobierno municipal ha decidido anular el proyecto de ejecución del aparcamiento debido a la aparición de restos de fibrocemento en el solar, pero sin ofrecer ninguna alternativa a las y los vecinos. Hay que recordar que la plataforma Altza Osasuntsuagoaren Alde solicitó la realización de un nuevo aparcamiento ya que el que se encuentra anexo a la casa de cultura Tomasene fue desmantelado a raiz de las obras del polideportivo. Desde entonces, las y los vecinos tienen serios problemas para aparcar en el barrio. En la comisión, la concejal delegada respondió que el Gobierno municipal no tiene ninguna alternativa y que será difícil encontrar zonas para ello, ya que primero habrá que analizar si están contaminadas.

Altzan amiantoa edo zuntz-zementua duen beste eremu bat detektatu da, beraz, zehazki Felix Iranzo pasealekuak Sasuategi bidearekin bat egiten duen lurzatian, aparkaleku bat eraikitzea aurreikusita zegoen tokian, eta horrek agerian uzten du beharrezkoa dela material horrek auzoan zer irismen duen zedarritzea.

La detección de una nueva zona de Altza con presencia de amianto o fibrocemento, en concreto, en la parcela de Félix Iranzo en su unión con el camino de Sasuategi, lugar en el que estaba previsto la construcción de un aparcamiento, demuestra la necesidad de delimitar el alcance de este material en el conjunto del barrio.

Badakigu laneko esposizioak eta amiantoa

Sabemos que, tanto la exposición laboral como

eraldatzeko plantetatik eta meatzeetatik hurbil bizitzeak, edo besterik gabe zuntz-mineral horrekin kontaktua izan duten profesionalekin bizitzeak asbestosia eta arnas- edo bihotz-murrizketa eragiten duten pleurako eta perikardioko afekzio fibrosanteak, bronkioko eta biriketako neoplasia gaiztoa, pleurako mesotelioma, periotenoko mesotelioma eta beste toki batzuetako mesotelioma sor ditzakeela, amiantoarekiko esposizioak eragindako gaixotasunen latentzia-denbora luzea dela eta 40 urte ere igaro daitezkeela, esposizioaren unetik.

el hecho de vivir cerca de plantas de transformación y minas de amianto, o el simple hecho de convivir con profesionales que sí habían tenido contacto con estas fibras minerales, puede producir asbestosis, afecciones fibrosantes de la pleura y pericardio que cursan con restricción respiratoria o cardiaca, neoplasia maligna de bronquio y pulmón, mesotelioma pleural, mesotelioma peritoneal y mesotelioma de otras localizaciones, y que el periodo de latencia de las enfermedades que se pueden derivar de la exposición al amianto es largo, y puede llegar hasta los 40 años desde el momento de la exposición.

Informazio horrek, Eusko Jaurlaritzak 2017ko ekainean Altzan amiantoarekin zerikusia duten heriotzak zenbat izan diren aztertzeko egindako txostenetik jasotakoak, gogorarazten du, mesoteliomaren, biriketako minbiziaren eta asbestosiaren garapenaren latentzia periodoak direla eta, beharrezkoa dela potentzialki amiantoaren esposiziopean egon diren biztanleen behaketa egiten jarraitzea.

Esta información recogida del Informe elaborado por el Gobierno Vasco en Junio de 2017 para delimitar la mortalidad en Altza por causas relacionadas con el amianto recuerda la necesidad de continuar con la vigilancia de la población potencialmente expuesta por los largos periodos de latencia del desarrollo del mesotelioma, el cancer de pulmon y la asbestosis.

Orain amiantoa agertu den lursaila, Arriberri kalearen bukaeran kokatua, oso hurbil dago Altzako kiroldegi berriak hartzen duen lursailetik. Han ere, gogoan dugunez, agertu zen material arriskutsu hori; kasu horrertan, amiantoa eremu hartan egon zen zuntz-zementuzko fabrika zaharretik zetorren, eta kiroldegiko obrak hasi aurretik deskontaminatu egin behar izan zen tokia. Harrigarria iruditu zaigu udal gobernuak egoera horren berri orain izatea, eremu horretan bizi den edonork baitaki inguru guztian aurki daitezkeela uralita-hondakinak han-hemen sakabanatuta. Hain zuzen ere horrexegatik, beharrezkoa da Altzan eta, oro har, Ekialdeko Barrutian kutsatuta dauden lurzoruen mapa egitea.

La parcela en la que se ha encontrado ahora amianto, al final de la calle Arriberri, se sitúa muy próxima a la parcela que ocupa el nuevo polideportivo de Altza, donde, como recordamos, también se constató la presencia de este peligroso material, que procedía de la antigua fábrica de fibrocemento que existía en el lugar, y que ha tenido que descontaminarse previamente al comienzo de las obras del polideportivo. Nos ha sorprendido que el Gobierno Municipal se haya enterado ahora de esta situación, porque cualquiera que viva en la zona sabe que en toda esta zona se pueden encontrar restos de Uralita esparcidos por los rincones. Precisamente porque ello, es necesario elaborar un mapa de suelos contaminados que se encuentran en Altza y en el Distrito Este en general.

Oraingo detekzioak kezka larria sortzen digu, kontuan izanda kiroldegiaren, Larresko ibarbidearen eta Felix Iranzo pasealekuak Sasuategi bidearekin bat egiten duen tokiaren artean, 200 bat metroko tartean, besteak beste, kultur etxe bat, liburutegi bat, haur-parke bat eta haren ondoan ikastetxe bat daudela (hor jadanik atzeman da amianto hauskorrak eragindako kutsadura handi bat lurzoruan), bai eta establezimendu eta etxebizitza ugari ere.

La reciente detección nos produce una grave preocupación, teniendo en cuenta que entre la ubicación del polideportivo, la vaguada de Larres y la calle Félix Iranzo en su unión con el camino de Sasuategi, entre los que hay una distancia de 200 metros, nos encontramos, entre otros, un centro cultural, una biblioteca, un parque infantil junto a un centro escolar (en el que se ya contaminación significativa por amianto friable en suelo) y numerosos establecimientos, además, de numerosas viviendas.

Bestalde, udal gobernuak badaki, 2019. eta 2020. urteetatik gutxienez, Sasuategin, eta zehazki Eguzkitzako gainaren eremuan, lurzoruak kutsatuta daudela, amiantoz horiek ere, eta hain zuzen ere horrexegatik utzi zela bertan behera toki hura baratze profesionaletarako erabiltzeko planteamendua.. Izan ere, horren berri eman zen 2020ko uztailean, Altzako kiroldegi berriaren inguruan amiantoz kutsatutako lurzoruei buruzko batzorde ez-iraunkorrean.

Por otro lado, el gobierno municipal también conoce, al menos desde los años 2019 y 2020, que en Sasuategi, y concretamente en la zona del alto de Eguzkitza, los suelos están contaminados también por amianto, y que precisamente por este motivo se desistió del planteamiento de destinar este lugar para la creación de huertas profesionales. De hecho, se informó de ello en la Comisión No Permanente sobre los suelos contaminados por amianto en el entorno del nuevo polideportivo de Altza de julio del 2020.

Amiantoz kutsatutako lurzoruei buruzko batzorde ez-iraunkorra, ordea, ez da elkartu hura eratzea onetsi zenean ezarritako aldizkakotasunarekin. Izan ere, sortu zenetik urtean behin bildu da, eta aldizkakotasun hori argiro da eskasa osasunerako hain kaltegarri den material baten presentziari aurre egiteko.

La comisión no permanente sobre suelos contaminados por amianto no ha mantenido la periodicidad establecida en el momento de su aprobación. De hecho, desde su creación se ha reunido una vez al año, periodicidad claramente insuficiente para hacer frente a la presencia de un material tan nocivo para la salud.

Altzan material hori etengabe agertzen dela ikusita, auzo horretan kutsadura zenbatekoa den jakiteko, bitartekoak jarri behar dira, babes-neurriak hartu ahal izan daitezen. Horretarako, lehenik eta behin, amiantoak auzo guztian zer presentzia duen zehaztu behar da, bizilagunei behar bezala eta etengabe jakinarazi zer pauso emango diren toki horiek segurtatzeko, eta

Conocer el alcance de la contaminación en Altza donde se constata la presencia constante de este material requiere poner medios que permitan implementar las medidas de protección necesarias. Para ello, es preciso primero determinar su presencia en el conjunto del barrio, informar debidamente y de forma constante al vecindario de los pasos a dar para

erakunde erantzuleei altzatarren osasunaren kontrola eta jarraipena egin dezatela planteatu. Gainera, beharrezkoa da bizilagunei aparkaleku berria bertan behera uzteko erabakiari buruzko azalpenak ematea, aparkatzeko zer arazo dituzten jakitea eta konponbide bat bilatzen saiatzea. Nolanahi ere, zinegotzi ordezkariak, batzordean horri buruz galdetu zitzaionean, ez zuen ezer erantzun .

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin dezala azterlan bat Altza auzoan eta, oro har, Ekialdeko Barrutian zenbat amianto dagoen eta kutsatutako lurrak zein diren zedarritzeko, haien irismena ezagutu eta, hala, haiek kontrolatzeko eta lurzorua deskontaminatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izan daitezen.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin dezala bilera publiko bat, Altzako bizilagunei Felix Iranzo pasealekuko lursailean agertutako amiantoaren inguruan zer pauso emango diren aditzera emateko, aparkaleku berriaren proiektua bertan behera uzteko erabakiari buruzko azalpenak emateko, aparkatzeko zer arazo dauden jakiteko eta konponbide bateratu bat bilatzen saiatzeko.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari bila dezala beste tokiren bat Felix Iranzo pasealekuko lursailean aurreikusitako aparkalekua jartzeko, ezinezkoa baita proiektu hori aipatutako lursailean gauzatzea.

asegurar esos emplazamientos así como plantear en el conjunto de las instituciones responsables un control y seguimiento de la salud de la población altzatarra. Además, es necesario dar explicaciones a las y los vecinos sobre la decisión de suspender el nuevo parking y conocer los problemas que tienen para aparcar, y para tratar de buscar una solución. En cualquier caso, en la comisión la concejal delegada no respondió nada al ser preguntada a ese respecto.

Ante esta situación, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar un estudio que delimite la presencia de amianto y tierras contaminadas en el barrio de Altza y, en general, en el Distrito del Este, al objeto de conocer su alcance y, con ello, desarrollar las medidas necesarias para su control y descontaminación del terreno.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a informar mediante una reunión pública a las vecinas del barrio de Altza sobre los pasos a dar con el amianto aparecido en la parcela de Felix Iranzo, y para dar explicaciones sobre la decisión de anular el proyecto de nuevo aparcamiento, conocer sus problemas de estacionamiento, y para tratar de buscar una solución conjunta.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a buscar alternativas de emplazamiento del aparcamiento previsto en la parcela Felix Iranzo ante la imposibilidad de materializar dicho proyecto en la citada parcela.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari koordinatu dadila Altzako biztanleen osasunaren kontrola eta jarraipena egiteko eskumena duten erakundeekin, auzoan amiantoaren presentzia oso handia dela ikusita.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 21a

Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a coordinar con las instituciones competentes el control y seguimiento de la salud de la población de Altza ante la presencia significativa de amianto en el barrio.

Donostia, 21 de enero de 2021

Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Zigor Etxeburua Urbizu, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

----------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzkoa.**

"Marta Huarte Paño Elkarrekin Donostia udal

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a delitos contra la libertad sexual.**

"Marta Huarte Paño, Concejala del Grupo

taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudiaren 98. artikuluarekin bat etorriz, kontrol-mozio hau aurkezten du, hil honetako Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean sexu-askatasunaren aurkako delituei buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Zoritxarrez, amaitu berri den urte honek datu kezkagarriak utzi dizkigu sexu-askatasunaren aurkako delituengatik jarritako salaketei dagokienez. Prentsan argitaratu berri denez, 2021. urtean, urtarriletik azarora, 411 emakumek salatu zuten, Euskadin, sexu-askatasunaren aurkako delitu baten biktima izan zirela, hau da, aurreko urteko aldi berean baino % 31,3 gehiagok, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak jasotako datuen arabera. Era berean, txosten horretan nabarmentzen da Gipuzkoan % 49 handitu dela delitu mota horren biktima diren emakumeen kopurua (2020an 106, eta iaz 158).

Datuak etengabe hazten ari dira; izan ere, iaz, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiek gora egin zuten Euskadin. Lurraldeka, hazkunderik handiena Gipuzkoan izan zen, bai familia barruko indarkeriari dagokionez, bai bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeen aurka eragindako indarkeriari dagokionez.

Estatuko legeria berrian adierazten da sexu-indarkeriek urratu egiten dutela askatasunerako, osotasun fisiko eta moralerako, berdintasunerako eta pertsonaren duintasunerako oinarrizko eskubidea, eta, feminizidioaren kasuan, baita bizitzeko eskubidea ere. Askatasun Sexualaren Berme Integralari buruzko Lege Organikoa aurrerapausoa da emakumeen babes integralean, emakumeek sexu-askatasunerako duten eskubidean eta sexu-indarkeria guztiak

municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la Interpelación en la Comisión de Personas del presente mes, relativa a los delitos contra la libertad sexual.

JUSTIFICACIÓN

Lamentablemente, este año que acaba de terminar nos deja datos preocupantes en lo que se refiere a denuncias por delitos contra la libertad sexual. Se ha publicado recientemente en prensa que en el año 2021, un total de 411 mujeres denunciaron de enero a noviembre haber sido víctimas de un delito contra la libertad sexual en Euskadi, lo que supone un 31,3% más que en el mismo periodo del año anterior, según datos recogidos por el Instituto vasco de la Mujer Emakunde. Así mismo, en el informe destaca el aumento del 49% en las mujeres víctimas de este tipo de delitos en Gipuzkoa (106 en 2020, por 158 el pasado año).

Los datos no paran de crecer, ya que durante el pasado año aumentaron en Euskadi todos los tipos de violencia contra las mujeres. Por territorios, el mayor aumento se dio en Gipuzkoa, tanto en lo que respecta a violencia intrafamiliar, como la ejercida sobre las mujeres por su pareja o expareja.

En la nueva legislación a nivel estatal se señala que las violencias sexuales vulneran el derecho fundamental a la libertad, a la integridad física y moral, a la igualdad y a la dignidad de la persona, y en el caso del feminicidio, también el derecho a la vida. La Ley Órgánica de Garantía Integral de la Libertad Sexual, supone un avance en la protección integral de las mujeres, en su derecho a la libertad sexual y en la erradicación de todas las violencias sexuales.

desagerrarazteko bidean.

Azken urteotan, mugimendu feministak sustatutako mobilizazio eta ekintza publikoei esker, sexu-indarkeriek ikusgarritasun handiagoa lortu dute gizartean. Genero-indarkeriaren aurkako legeak zioen bezala, legeria horren arabera ere, sexu-indarkeria egiturazko arazo publikoa da, ez pribatua. Horri ziberjazarpena gehitu behar zaio, sexu-askatasunaren aurkako beste delitu mota bat baita.

En los últimos años, gracias a las movilizaciones y acciones públicas promovidas por el movimiento feminista, las violencias sexuales han obtenido una mayor visibilidad social. Al igual que hizo la ley contra la violencia de género, esta legislación entiende la violencia sexual como un problema estructural y público, no privado, al que habría que sumar el ciberacoso como otro tipo de delito contra la libertad sexual.

EIGE Genero Berdintasunaren Europako Institutuaren arabera, gaur egungo testuinguruan, onlineko genero-indarkeria gero eta arazo handiagoa da; gainera, mundu osoan gertatzen da, eta oso ondorio esanguratsuak ditu. Europako Parlamentuaren 2021eko urtarrilaren 21eko ebazpen baten arabera, Europar Batasunean 15 urtetik gorako hiru emakumetik batek pairatu du indarkeria fisiko edo sexualen bat; bitik batek sexu-jazarpena jasan du, eta hamarretik batek jazarpena Interneten. Nazioarteko Plana GKEak 2020an egindako azterlan baten arabera, hamar haur eta nerabetik seik jazarpena jasaten dute sareetan.

Según el Instituto Europeo de la Igualdad de Género/EIGE, en el contexto actual, la violencia de género online es un problema creciente de proporciones mundiales y de consecuencias muy significativas. Una resolución del Parlamento Europeo de fecha 21 de enero de 2021, afirma que una de cada tres mujeres en la Unión Europea mayores de 15 años ha sufrido alguna forma de violencia física o sexual; que una de cada dos ha sufrido acoso sexual y una de cada diez, ha sufrido acoso en internet. Segun un estudio llevado a cabo por la ONG Plan International en 2020, seis de cada diez niñas y adolescentes sufren acoso en las redes.

Gizarte matxista eta patriarkalaren pentsamoldea aldatu behar da, eta hezkuntzan eragiteko neurriak ezarri, belaunaldi berriek rolak eta estereotipoak errepika ez ditzaten. Prebentziorako tresnak eman behar dira, haurtzarotik. Horretarako, zalantzan jarri behar da patriarkatua, balio- eta kultura-sistema gisa, bai eta emakumeei esleitutako bigarren mailako rola ere.

Hay que cambiar la mentalidad de una sociedad machista y patriarcal e implementar medidas que incidan en la educación, dirigidas a que las nuevas generaciones no repitan roles y estereotipos. Dotar de herramientas para la prevención, desde la infancia. Poniendo en cuestión el patriarcado como sistema de valores y cultural, y el rol secundario asignado a las mujeres.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen ez zela baliagarria Udalak Donostiari buruzko txosten zehatz bat egitea; 2021ean egin zutela emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kanpaina bat, eta haren barruan jorratu zutela

En Comisión, la Concejala delegada afirmó que no era útil hacer un informe detallado referido a la ciudad de Donostia por parte de Ayuntamiento, y que ya habían realizado en el 2021 una campaña relacionada con la

ziberindarkeriaren gaia.

violencia contra las mujeres, y dentro de esa campaña se había tratado el tema de la ciberviolencia.

Emakundek egindako txostenak aipatzen du sexu-askatasunaren aurkako delituak nabarmen ugaritu direla Euskadin eta, bereziki, Gipuzkoan. Zigor Kodeak 178.etik 194.era bitarteko artikuluetan jasotzen ditu sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak. Horiek, besteak beste, honako hauek dira: sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpena, sexu-ziberjazarpena, prostituzioa, sexu-esplotazioa eta adingabeak galbidean jartzea. Gure ustez, datu horiek errealitate kezkagarri bat erakusten dute, eta erakundeek, baita Udalak ere, kontuan izan behar dute errealitate hori.

El informe realizado por Emakunde hace referencia al importante incremento de los delitos contra la libertad sexual en Euskadi, y en Gipuzkoa en particular. El Código Penal recoge en los artículos 178 a 194 los delitos contra la libertad e indemnidad sexuales. Estos son las agresiones sexuales, los abusos sexuales, el acoso sexual, el ciberacoso sexual, la prostitución, explotación sexual y corrupción de menores entre otros. Entendemos que estos datos revelan una realidad preocupante que debe atenderse desde las Instituciones , también desde el Ayuntamiento.

Horri dagokionez, funtsezkoa da ekimenak sustatzea eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, ahal den neurrian. Era berean, kanpaina eraginkorrak egin behar dira, eta horien hedapenak egiaz kontzientziatu behar du, emakumeei eta neskei informazioa eman behar die haien aurkako indarkeriari buruz, haien legezko eskubideei buruz eta erabilgarri dauden laguntza-zerbitzuei buruz. Prebentzioak jokabideen aldaketan jarri behar du arreta, eta ez soilik haren alderdi negatiboak azpimarratu. Horren guztiaren helburua berdintasuna eta indarkeria matxisten aurkako borroka sustatzea da.

En lo que respecta a éste, es fundamental impulsar iniciativas y colaborar con otras Instituciones en todo lo posible. Tambien es necesario emprender más campañas que sean efectivas, cuya difusión produzca realmente una concienciación en las que se informe a mujeres y a niñas de la violencia que se ejerce contra ellas, de sus derechos legales y de los servicios de ayuda disponibles. La prevención debe incidir en el cambio de conductas, no solo enfatizar sus aspectos negativos. Todo para fomentar la igualdad y la lucha contra las violencias machistas.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari emakumeen eta haurren sexu-askatasunaren aurka egiten duten indarkeria mota guztien aurkako sentsibilizazioa sustatzeko, hedapen-kanpaina eraginkorren bidez.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a impulsar la sensibilización contra las distintas formas de violencia que atentan contra la libertad sexual de las mujeres, niñas y niños a través de campañas efectivas de difusión.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hobetu dezala erakundeekiko koordinazioa eta lankidetza, indarkeria matxistaren modu guztien aurka borrokatzeko.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala azterlan bat, jakiteko haur, gazte eta emakumeek zer gogobetetze eta kontzientziazio maila duten Udalak egindako ekintza eta kanpainei dagokienez.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 21a

Sinatua: Marta Huarte Paño
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a mejorar la coordinación y la colaboración con las diferentes Instituciones en la lucha contra las formas de violencia machista .

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar un estudio referido al grado de satisfacción y concienciación de las niñas, niños, jóvenes y mujeres, respecto a las acciones y campañas realizadas por el Ayuntamiento.

Donostia, 21 de enero del 2022

Fdo.: Marta Huarte Paño
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Marta Huarte Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 1 - PP PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 1 - PP POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 1 - PP PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 1 - PP POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

**9. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 5 – (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 6 – (5) EH BILDU, (1) PP PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 5 – (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 6 – (5) EH BILDU, (1) PP POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

----------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako erdigunean dauden parkinei buruzkoa.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a los parkings que se encuentran en el centro de la ciudad.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,

udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko urtarrilaren 17an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak egun 35 parking ditu hiri osoan sakabanatuta. Horietatik batzuk hiriaren erdigunean daude; hala nola, Alderdi Eder-Bulebar, Okendo, Kontxa, San Martin, Easo, Okendo, Katalunia Plaza edo Txofre parkingak.

Parking hauek kontuan harturik, erdigunean bakarrik 3.000 plaza inguru daude errotaziorako aparkalekuetan; beraz, horrek egunerokoan autoen joan-etorri handi bat sortzen du, auto pribatuen sarrera errazten du erdigunean, gure hiriko trafikoa zailduz eta egun borroka den CO2 murrizketari kontra eginez.

Horrez gainera, Udalak epe oso luzeko emakida eginak ditu parking hauetarako: Kontxakoa, adibidez, 2058. urtean bukatuko da eta lehen amaituko den emakida Artzain Onekoa litzateke, hain zuzen, 2043an bukatuko litzatekeena.

Gogorarazi behar dugu Donostiako Udalak Larrialdi Klimatikoa adierazi zuela 2020an eta horri lotutako ekintza proposamena kaleratu zuela, mugikortasun jasangarria sustatzeko ekintzak barne. Ekintza-ildo horietako bat garraio publikoaren eta pribatuaren arteko joan-etorrien proportzioa inbertitzea da, eta parking pribatuak erdigunean duten erabilerarekin mantenduz, nekez lortuko da inbertsio hori

concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Espacio Público de 17 de enero de 2022.

JUSTIFICACIÓN

San Sebastián cuenta actualmente con 35 parkigns distribuidos por toda la ciudad. Algunos de ellos se encuentran en el centro de la ciudad, como los de Alderdieder-Boulevard, Okendo, La Concha, San Martin, Okendo, Plaza de Cataluña o Txofre.

Teniendo en cuenta estos parkings, solo en el centro hay unas 3.000 plazas de aparcamiento para rotación. Todas estas plazas generan un gran tránsito de coches en el día a día y facilitan la entrada de vehículos privados a nuestra ciudad. Esta situación dificulta el tráfico en nuestra ciudad y va en contra de la disminución de las emisiones CO2, que es la lucha que se está llevando a cabo actualmente.

Además, el Ayuntamiento cuenta con concesiones a muy largo plazo para estos parkings. La de la Concha, por ejemplo, finalizará en el año 2058, y la concesión que vencerá en primer lugar será la de Buen Pastor, concretamente en el año 2043.

Cabe recordar que el Ayuntamiento de San Sebastián declaró la emergencia climática en 2020 y que lanzó una propuesta de acciones a este respecto, en la que se incluía la promoción de la movilidad sostenible. Una de estas líneas de acción es invertir la proporción de los desplazamientos en transporte público y privado. Sin embargo, si se mantienen los párkings privados del centro con el uso que se

egitea.

les da actualmente, difícilmente se logrará invertir esta proporción.

Horrez gain, Udal Gobernuak Datorren Donostia proiektua martxan jarri berri du, gainerako udal taldeekin eta eragileekin erabaki beharrekoa. Proiektu honen helburua da beste mugikortasun eredu bat sustatzea, emisio baxuko eremu bat sortzea eta oinezko, bizikleta eta garraio publikoa lehentasunezkoa izatea. Hala ere, neurri ausartak hartu ezean proiektu honek helburuak ez betetzeko arriskua dago.

Además, el Gobierno municipal acaba de poner en marcha el proyecto Datorren Donostia, que se deberá consensuar con el resto de grupos y agentes municipales. El objetivo de este proyecto es promover otro modelo de movilidad, crear una zona de bajas emisiones y dar prioridad a peatones, a ciclistas y al transporte público. Sin embargo, si no se toman medidas audaces se corre el riesgo de que este proyecto no cumpla los objetivos fijados.

Jakin badakigu parkingetan eraldaketa bat emateko irtenbidea ez dela erraza. Enpresa emakidarekiko kalte ordainak eta parkingeko langileen lan-baldintzak tarteko egoera konplikatua baita, baina, benetan mugikortasun jasangarria sustatu eta autoak gure hirigunetik atera nahi baditugu, lehentasunezkoa izan beharko litzateke aparkaleku publikoei irtenbide publiko bat bilatzen hastea.

Somos conscientes que la solución para facilitar una transformación de los parkings es complicada. La indemnización a la empresa concesionaria, teniendo en cuanta también las condiciones laborales del personal del parking, es un asunto complicado, pero, si realmente queremos promover la movilidad sostenible y eliminar los coches de nuestro casco urbano, debería ser prioritario empezar a buscar una solución pública al problema estratégico de los aparcamientos públicos.

Honetaz guztiaz interpelazioa aurkeztu genuen urtarrileko batzordeetan, baina zinegotzi arduradunaren arabera, Udal Gobernuak horrelako ezer ez egiteko asmorik ez zuela adierazi zuen, emakida luzeak direla eta etorkizuna baldintzatu ezin dela aitzakia hartuta.

En las comisiones de enero presentamos una interpelación sobre esta cuestión, pero la concejala responsable manifestó que el Gobierno municipal no tiene intención de hacer nada a este respecto, con la excusa de que son concesiones de larga duración y que no se puede condicionar el futuro.

Baina gure ustetan, orain da momentua, orain dugu aukera arazo honi irtenbide egokia bilatzeko eta Donostian benetako mugikortasun jasangarria sustatzeko. Hortaz, alde batetik, Udal Gobernuak ziurtatu beharko luke etorkizunean ez dela emakida berririk egingo eta parkingak zerbitzu publiko bihurtuko direla.

No obstante, creemos que es el momento de actuar, que ahora es cuando tenemos la oportunidad de buscar una solución adecuada a este problema y de promover una movilidad real y sostenible en San Sebastián. Por tanto, por un lado, el Gobierno municipal debería asegurarse de que en el futuro no se adjudiquen nuevas concesiones y que los párkings se conviertan en un servicio público.

Eta bestetik, egungo eta etorkizuneko autoen murrizketarekin, argi dago parkingek ezin dutela egun duten erabilera bera izan. Hortaz, lurrazpiko aparkalekuen erabilera berri baten azterketa hasi beharko luke Udal Gobernuak. Libratzen diren autoen plazek bestelako erabilerak izan ditzakete, hala nola, errotaziozko aparkaleku jakin batzuk bertakoentzat bihurtuz, honek lurgaineko espazio publikoa libratu eta handituko luke; bizikletentzako aparkaleku seguruak sortu; dendak hornitzeko gune logistikoa; hiriko garraio jasangarria sustatzeko cargo bike bizikletentzako gunea...

Por otro lado, con la reducción de vehículos que se está produciendo en la actualidad y que se producirá en el futuro, está claro que los párkings no pueden tener el mismo uso que tienen actualmente. Por tanto, el Gobierno municipal debería iniciar un estudio sobre el nuevo uso que se les podría dar a los aparcamientos subterráneos. Las plazas de vehículos que queden libres se podrían destinar a otros usos. Por poner un ejemplo, algunos aparcamientos de rotación podrían convertirse en aparcamientos para residentes. De esta forma, se liberaría y ampliaría el espacio público en superficie y se podrían crear aparcamientos seguros para bicicletas, una zona logística para abastecer a los comercios, una zona para las cargo bike, de manera que se fomente el transporte urbano sostenible...

Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu parkingen arazo estrategikoari irtenbide bat bilatzea eta egun duten erabilera aztertu beharra.

Por tanto, consideramos imprescindible buscar una solución al problema estratégico de los párkings y analizar su uso actual.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lurrazpiko parkingen emakidekin amaitzeko azterketa ekonomiko eta plangintza bat egin dezala.

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar un estudio económico y de planificación para acabar con las concesiones de los párkings subterráneos.

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, lurrazpiko parkingen emakidak bukatzen diren heinean, emakida berririk ez egiteko eta haien kudeaketa publiko bihurtzeko konpromisoa har dezala.

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, a medida que finalicen las concesiones de los párkings subterráneos, se comprometa a no realizar nuevas concesiones y a hacer pública su gestión.

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lurrazpiko parkingen

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar un

etorkizuneko erabilerari buruzko azterlan bat egin dezala (libratzen diren errotaziozko autoen plazek bestelako erabilerak izan ditzaten).

estudio sobre el futuro uso de los párkings subterráneos (para que las plazas de vehículos de rotación que queden libres puedan destinarse a otros usos).

Donostian, 2022ko urtarrilaren 21ean

San Sebastián, 21 de enero de 2022

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

----------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ORDU BIAK ETA SEIAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS CATORCE HORAS Y SEIS MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**